

Mariasun Landa, atzo Donostiako Parte Zaharrean, eskuan liburu berria duela. :: LUSA

Gelditu eta atzera begirako bat egin du Mariasun Landak

Hainbat urtetan zehar han eta hemen egindako artikulu eta hitzaldiak liburu batera ekarri ditu: 'Txikiaren handitasuna literaturan'

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Mariasun Landa idazleak bere hitzaldi, artikulu eta saiakera labur batzuk bildu ditu liburu batera: 'Txikiaren handitasuna literaturan' (Erein argitaletxea). Gogoetagai nagusiak lau dira: feminismoa eta sexismoa, irakurketa literarioa, idazketa eta haur eta gazte literatura. Testu zaharrena 1994koa, berriena iaz idatzitakoa. Testu bakoitzaren bukaeram Marga Otaegiren artelan baten argazkia dator, batzuetan margolana, beste batzuetan collagea edo bestelako teknikaren bat erabilita egindakoa.

Mariasun Landa (Errenteria, 1949) haur eta gazte literaturan espezializatutako idazlea da. 1982an publikatu zuen lehenbiziko liburuak, haur literaturakoak. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle ere izan da. «Ia 40 urte daramatzat idazten eta irakaskintzan. Bi pedalei eraginda, idatzi eta irakatsi egin dut. Irakasletza ez da ogibide soil bat izan; asko gozatu dut, ikasleek asko eman didate», adierazi du liburuaren aurkezpenean.

«Horrelako liburuek ez dute zentzurik norberak ez badauka adin bat. Hau uzten dut, hau da nik eman dezakedana. Oro har, gustatuko litzaidake liburua irakasleengana eta liburuzainengana heltzea; alegia, liburu artean lan egiten dutenengana», gaineratu du.

Aurkezpen ekitaldian, bukaera emateko, bere idazle kuttunen zerrenda egin du. Hasteko, Charles Perrault, ahozko tradizioko ipuinak jaso eta idatzi zituena, hala nola 'Txano Gorritxo', 'Eder lotia' eta 'Erpurutxo'. «Ez ziren propio haurrentzat sortutako ipuinak, baina haurrek bere egin zituzten», esan du. Baita ere, Gianni Rodari. «Nire aitapontekoa izan da, 80ko hamarkadan deskubritu nuen haren 'Gramática de la fantasía', idatzi nahi duenari errekurtso asko ematen dion liburua». Eta Asun Balzola. «Oso inportantea nire bizitzan, adiskide izan nuen eta estetika bat eman zion nire idazkerari». Antoine de Saint-Exupéry eta 'Printze txikia'. «Gurasoei asko gustatzen zaie liburu hori, nahiz pertsona helduak goitik behera kritikatzen dituen. Oso liburu enigmatikoa da, existentzialista, ezkorra». Simone de Beuavoir eta 'Le deuxième sexe'. James Matthew Barrie eta 'Peter eta Wandy'. «Wandy, liburuan, ez zen hain neska pasiboa». Christine Nöstlinger eta 'Konrad'. «Hark errealismo kritikoa egiten omen zuen, eta liburu hori irakurrita konturatu nintzen ni neu ere horixe ari nintzela egiten». Eta Italo Calvino eta 'Sei proposamen milurte berrirako'.

TXIKIAREN HANDITASUNA...
MARIASUN LANDA
Generoa: Artikuluak.
Argitaletxea: Erein.
Orriak: 176.
Prezioa: 16 euro.

Hauek dira liburuko testuetako batzuk: 'Zientzia eta literaturaren mugen arteko espazioak', 'Bigarren sexua', 'Autobiografiaz', 'Literatur tailerra ikasgelan', 'Nire bestiario pertsonala' eta 'Etiketarik gabeko literatura'.

Testuotako batzuk euskarara ekarri behar izan dira, bilduma honetan publikatzeko. Editore lana Erein etxeko Inazio Mujika Iraolak egin du.

Burgess-en 'Laranja mekanikoa', beste harribitxi bat euskarara ekarrita

:: F. I.

DONOSTIA. Anthony Burgessen 'Laranja mekanikoa' publikatu du Meettok argitaletxeak. Itzulpena Ion Olano Carlosek (Donostia, 1983) egin du eta ahalegin luze baten ondorio da lan hori. «Hamaika urte eman ditut liburu hau euskaratu nahian. Kazetaritza ikasi nuen hemen, gero literaturaren teoria Bartzelonan. Hanka hautsi nuenez, geldirik egon behar nuen, eta denbora hori probestu nuen itzulpena burutzeko», adierazi du liburuaren aurkezpenean. Hauxe du aurreneko itzulpen lana.

Gainera, argitalpenak Harkaitz Canoren epilogoa dakar. Idazle honen ustez, «berreziketaren ezintasunari buruzko liburua» da nobela hau.

LARANJA MEKANIKOA
ANTHONY BURGESS
Generoa: Nobela.
Argitaletxea: Meettok.
Orrialdeak: 246.
Prezioa: 17 euro.

Liburua baino askoz ezagunagoa da berorretan oinarritua Stanley Kubrickek egin zuen filma. Jende askok izango du gogoan hango zenbait eszenatan agertzen zen muturreko biolentzia.

Nolanahi ere, Burgess ez zen batere konforme gelditu filmarekin. Bestalde, Kubricken bertsioan ez da argitzen izenburuaren esanahia. Liburuan bai, ordea. Honela dio Olanok hitzaurrean: «Burgessen ideien arabera, erabakitzeko ahalmenik izango ez bagenu, laranja mekanikoak izango ginateke: alegia, organismo bizien itxura dutenak azalez, baina metalikoak direnak mamiz, mekanismoz josiak barrutik».

Nobelaren oinarrian benetako gertakizun bat dago: 1944an, Londresen eta II. Mundu Gerra garaian, Estatu Batuetako Armadako lau desertorek eraso egin zioten Burgessen emazteari, eta bortxatu.

Xabier Erkizia y Arantxa Iturbe ofrecen hoy 'Afoniak', dentro de Literaktum

:: DV

SAN SEBASTIÁN. La sala Club del Teatro Victoria Eugenia acoge hoy un espectáculo novedoso y original. El artista sonoro Xabier Erkizia y la escritora y locutora de radio Arantxa Iturbe presentarán la creación sonora 'Afoniak'. Este estreno es fruto del trabajo conjunto entre Donostia Kultura y Euskal Kultur Erakundea, y el artista Xabier Erkizia se ha encargado de conceptualizar, escribir, diseñar y editar dicha creación y preparar el espectáculo en directo. La cita es a las 19:00 horas.

La creación surge a partir del proyecto 'Idazlezainak'. Se trata de un proyecto en el cual se recogen las grabaciones sonoras de escritores y escritoras vascos en Wikipedia, y tomando como base dichas grabaciones, se propone una reflexión poética sobre la voz, el oído, la grabación vocal y la literatura.

Más de una docena de voces de escritores y escritoras conformarán dicho trabajo; algunas grabadas anteriormente –de archivo–, y otras grabadas expresamente para la representación. El resultado es una pieza coral sobre la literatura vasca.

El proyecto 'Idazlezainak' cuajó en base al trabajo de un grupo de bibliotecarias, que además de proteger y cuidar los libros, se dedican a cuidar a los creadores. Lo hacen a través de Wikipedia, escribiendo artículos sobre creadores y creadoras, actualizándolos y ofreciendo diferentes recursos. La iniciativa ha tenido una acogida excelente y son muchos los y las escritores que han participado grabando su voz y dotando de información para escribir los artículos en Wikipedia.

Precisamente esa ha sido la materia prima utilizada para crear 'Afoniak'. Este ejercicio 'remix' muestra que, reutilizando voces grabadas, se puede crear una pieza nueva y original. Además se promociona la difusión libre de la cultura y el trabajo creativo, gracias a las licencias libres Creative Commons.